

MUTRIKU / Liburu Astea astelehenean hasiko da

GARBIÑE GARAGARZA

Astelehenetik hasita, irakurzaletasuna zabaldu eta bultzatzeko asmoarekin, ekimenez betetako astea prestatu du Udalak. Liburuaren Astean, besteak beste, tailerrak, erakusketak eta hitzaldiak antolatu dituzte.

Adin guztietako jendeari zuzendutako ekimenak antolatu dira, eta guztiak Zabil Kultur Etxean izango dira. Horrela, astelehenetik maiatzaren 1era arte publiko guztiari zuzendutako Mandalak idazteko artea erakusketa egongo da. Aste horretan gazteenei zuzendutako tailerrak ere egongo dira. Astelehen eta martitzenean ere apirilaren 24 eta 25 gazteak izango dira protagonista. Bi adin taldetan banatuta, Yolanda Arrieta idazle etxebarritarrekin liburu artean jolastuz, ikasteko aukera izango dute. Bi egun beranduago apirilaren 26an Mariano Fernandez Urreistik ordu betez bi mila urtean ezkutuan egon den historia ulertzeko giltzak eskainiko ditu. Leonardo da Vinciren kodean barneratuko ditu herritarrak. Horretarako, Nazareteko Jesus eta Maria Magdalenaren arteko erlazioa, Templearen ordena eta haien se-kretua, Sioneko prioratoa eta XIX. mendean Rennes le Chateau herrian aurkitutako dokumentuez hitz egingo du.

Apirilaren 27an, berriz, antzezlan musikal eta dibertigarria egongo da. Bertan, pertsonaien bidez, lankidetasuna eta errespetua landuko dute. Ekimenez gain, liburutegia erabiltzen duten guztien artean liburu sortak zozketatuko dira Liburuaren Astean.

LIBURU ASTEA ' 2006. Egitaraua

- Aste guztian

17:00etatik 18:00etara. Umeentzako tailerrak.

18:00etatik 20:00etara. Erakusketa.

- Apirilak 24 eta 25

17:00etatik 18:00etara. 5 eta 7 urte bitarteko umeei zuzendutako tailerrak.

18:00etatik 19:30era. 8 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako tailerrak.

- Apirilak 26: 19:00ak. Helduentzako hitzaldia: Las claves delCodigo da Vinci.

- Apirilak 27: 17:00ak. Umeentzako ikuskizuna: Amama Pantxikaren altxor ezkutua.